# OSASUNA ELKARREKIN EGINA

2018-2020
OSI URIBEKO
**PLAN ESTRATEGIKOA**



Osi Uribe

Gure Plan Estrategikoa URIBE ESIaren etorkizuna bideratzeko aukera bat da, Osakidetza garela kontuan izanik, baina aldi berean, proiektu partekatu batean gure nortasunaren ezaugarriak eraikiz.

## Xedea:

**Osasun zerbitzu publiko integratua, zuzena, eraginkorra, segurua eta kalitatekoa ematea, pertsonarengan zentratuta dagoena, inguruko beste agente batzuekin elkarlanean sistemaren osasuna eta iraunkortasuna hobetzen laguntzeko.**

## Ikuspegia:

# OSASUNA ELKARREKIN EGINA



# Balioak:

## Pertsonak sistemaren ardatz nagusia:

Pertsonekin eta pertsonentzat lan egiten dugun pertsonak gara. Pertsonen arreta ikuspegi integral batetik ulertzen dugu, pertsonak arretaren jomugan jarrita eta komunitatea jardueraren ardatz gisa hartuta.

## Profesional trebatuak eta konprometituak:

Profesional trebatuak gara, osasunaren hobekuntzarekin konprometituta gaude eta partaide sentitzen gara; lankidetza eta talde lana sustatzen dugu ezagutzak hobeto eta gehiago trukatzen laguntzeko, azken buruan arretaren kalitatea hobea izan dadin.

## Eraginkortasuna:

Emaitzak lortzera bideratuta gaude, baliabideen kontsumo orekatua zainduta, sistemaren iraunkortasunean laguntzeko.

## Berrikuntza eta etengabeko hobekuntza:

Proaktiboak gara hobekuntza bilatzen eta irekita gaude gure ikuspegia lortzen lagunduko diguten aldaketetara.

# Ildo estrategikoak:

## 1 Pertsonarengan zentratutako arreta

Helburu estrategikoak

- **Herritarren parte hartzea** bultzatzea
- Osasunaren kudeaketan **informazioa eta gaitasuna duten pertsonak** lortzea
- Sistemaren **irisgarritasuna** hobetzea
- Pazientearen **segurtasuna** bermatzea, prozesu asistentzial guztietan
- **Zaintzailera** arreta eskaintzea

## 2 Prebentzioa eta asasunaren sustapena

Helburu estrategikoak

- Maila indibidualean eta komunitatean ohitura osasungarriak sustatzeko ekintzak bultzatzea
- **Prebentzio eta baheketa programak zabaltzea populaziorako**

## 3 Eredu asistentziala

Helburu estrategikoak

- Uribe ESIko **Ospitale proiektuko eskaintza asistentziala** zabaltzea (Ospitale Proiektua)
- **Lehen Arretaren balio erantsia** bultzatzea eta arreta horren **eraginkortasuna hobetzea**
- **Etxeko Arreta** eta pazientearen osotasuna aintzat hartzen duena bultzatzea
- **Erizaintzaren berrantolaketa**
- **Integrazioan aurrera egitea**

## 4 Profesionalak

Helburu estrategikoak

- Erakunde berriarekiko **kultura eta partaide izatearen sentimendua** sortaraztea
- **Ezagutzaren Kudeaketa** sistematizatzea
- Talentuaren kudeaketari heltzea: talentua erakarri, garatu eta atxiki
- Euskararen erabilera sustatzea
- Enpresa osasungarria

## 5 Kudeaketa aurreratua eta iraunkortasuna

Helburu estrategikoak

- Kudeaketa Aurreratuko Eredua (KAE) zabaltzea eta sendotzea
- Emaitzak lortzea osasunean, eraginkortasuna bermatuta
- Erantzukizun Sozialaren ikuspegiari eustea, konpromiso sozialari eta ingurumenarekiko konpromisioari dagokienez

## 6 Berrikuntza eta ikerketa

Helburu estrategikoak

- Berrikuntzaren eta Ikerketaren alorra garatzea, Uribe ESIan

# OSASUNA ELKARREKIN
EGINA